

EMAKUME ETA ETORKIN:

Talde-iraupenak egiturazko desbardintasunen aurrean

Urteen buruan, pertsona migratzaileen etorrerak goranzko etenbako joerari eutsi egin deutso eta, hori baino garrantzitsuagoa oraindik, biztanleria hori gure inguruko uri eta herri guztietan finkatuz joan da.

Askotan, migrazioaz hitz egitean, bakarrik dagozan adin txikiko eta gazteengan, errefuxiatuengan eta, euren jomugarako bidean, leku jakin batean denporaldi laburra igaroten daberen pertsonengan jarten da arreta.


Ostera, emakume etorkinarengan gitxitan jarten da arreta, gitxienez bereizkeria hirukotxa jasaten badau be: emakume izatea, bitarteko ekonomikorik ez eukitea eta migratzaile izatea.

“Covid-19aren arrastoak emakume etorkinengan: iraupen-esperientziak egiturazko desbardintasunen aurrean” ‘Harresiak Apurtuz’ erakundeak bultzatutako ikerketaren arabera, desbardintasun sistemikoak emakume etorkinak zeharkatu egiten dituala esan daiteke, izan be, sistemaren eraginez egundoko behin-behinekotasunezko zirkulu lez agertzen jaken bizitzari aurre egin behar deutse derrigorrez eta hortik atara ezinda dagoz. Emakume horreentzat, Covid-19a beste oztopo bat izan da ibilbidean. Kontua da, orokorrean, prozesu migratzailea bizi izan daberen emakumeak pandemiaren unerik gogorrean, 2020ko martxoan agindutako konfinamenduan, askotariko inguruabarrez beteta egozan eta pisu gehiago hartzeko lekurik ez eukien motxilakaz, iritsi zirala.


Alde batetik, emakume etorkinek alde aurretik jasaten daberen desbardintasun eta bazterkeriazko egiturak hain dira gogorak non Covid-19ak aldaketarik eragin ez dauan eta, beraz, arazo nagusi dira euren bizitzetan, baita pandemiaren beraren gainetik be. Honen haritik, ezin dogu ahaztu ahultasunaren eta emakume asko eta asko bizi dan behin-behinekotasunezko sorgin-gurpilaren katalizatzaile indartsu lez jarduten dauan lege kontrako administrazio-egoera.

EMAKUME ETORKINEN ZAILTASUN NAGUSIAK:

1. **Legez kontrako administrazio-egoera** eta honek zailtasuna baino ez dakartsez heziketa jadesteko, lan-merkatuan sartzeko...
2. **Batez be gizonen beharizanei erantzuteko eta eremu maskulinizatuetatik pentsatutako txertatze-egitasmoak**, sareen sareak dalakoan zein administrazio publikoetan.



3. **Eten digitala eta hizkuntza-arrakala.** Emakume gehienek oinarriko gaitasun digitala eta hizkuntza-gaitasuna dabe eta horri esker ondo moldatzen dira interneten, gizarte sareetan, aplikazio mugikorretan, eguneroko izapideetan, e.a. Halanda be, izapideetara sartzeko egiaztagiriaren eskuratzeko bideak edo hizkuntzaren mailak, zaildu egiten dabe zerbitzu publiko honeetara sartzea eta horreez benetan gozatzea.
4. **Bakardadezko atsekabea eta gizarte babeserako sarerik eza.** Emakume etorkinek ez dabe inongo eremurik laguntza eskuratzeko eta beste emakume batzuk hartu-emonan izateko. Horregaitik, hil edo bizikoa da “hartu-emonerako eremu seguruak sustatzea, horreetan emakumeek alkar laguntzarako sare formalak zein informalak garatu daiezan, euren artean hain nabariak diran bakardadezko jardunbideak hautsi ahal izateko”.



INFORMEAK ETA ESTEKAK

- **TXOSTENA:** "Covid-19aren arrastoak emakume etorkinengan: iraupen-esperientziak egiturazko desbardintasunen aurrean" txostena, **laster kaleratuko dana: ESTEKA**
- **ARTIKULUA:** Emakume etorkinak Euskadin: "Lanbide nos segrega a trabajos precarizados": **ESTEKA**
- **DOKUMENTALA:** 'Mi Piel'. Zortzi emakume etorkinen ahalduzterari buruzko kontaketa. **ESTEKA**
- **DOKUMENTALA:** Etorkin emakumeak 2an: : **ESTEKA**
- **DOKUMENTALA:** "Integradas": **ESTEKA**
- **GOMENDATUTAKO IRAKURGAIA:** "Mírame a los ojos: No es tan difícil entendernos" de Miriam Hatibi




Gogoeta eta ekintzarako:

- Nire inguruan, badot hartu-emonik emakume etorkinen bategaz? Ezagutzen dodaz zeharkatzen dabean beharizan eta arazoak? Nire beharizan eta arazoen antzekoak dira? Zelan hartzen dodaz emakume etorkinak?
- Emakumeen egoera salatze eta gaitzesteko ekintzetan parte hartzen dodanean, kontuan izaten dodaz emakume etorkinak? Ze egin daikezu emakume etorkinak agertzeraz emoteko?



5. **Uztartze ideala vs benetako uztartzea.** Gure gizartean, uztartzea gatxa da pertsona guztientzat, benetako orekak egin behar izaten dira familiaren zaintza, lana, heziketa, gizarte bizitza,... uztartzeko, eta gizonaren esku-hartzea lortzeko. Horregaitik, ekonomia-bitartekoen eskasiaren eta emakumeei euren txertatze-prozesuan lagunduko leuskien gizarte-familia sarerik ez egotearen eraginez, ia ezinezkoa da emakume horreek euren bentako beharizanak kontuan hartuta eratzten ez diran bitartekoetan irautea.



6. **Emakumeek zuzenean euren buruko osasunean eragiten dabean ondoezak daukiez;** gainera, pandemia dala-eta, nortasunari eta feminitate hegemonikoaren eraketari estu lotuta dagozan buruko gaixotasunek okerrera egin dabe. Emakumeak "besteentzat izateko" agindutik sozializatu izan dira eta agindu honek eragin askoz esanguratsua dau ama izateko derrigortasunagaz kurutzatzen danean. Ezinbestekoa da ondoez honeetan jarri beharreko arretak ezin dauala banakakoa izan kontuan hartzea, eta ez dogu ahaztu behar eurengandik kanpoko diran alderdiek, esate baterako ohiko feminitatearen eraketak, eragin zuzena dabela buruko osasunari lotutako ondoezetan. "Holan, esku-hartzea emakumeak eurak errudun ez egiteari eta, azken batean, esku-hartze eraginkorragoa izateari begira gauzatuko da".

Konfinamenduaren aurreko osasun mentaleko arazoak



Konfinamenduaren aurreko osasun mentaleko arazo motak



7. **Indarkeriek zeharkatuta:** Emakumeek, orokorrean, eta hedaturaz, emakume etorkinek askotariko indarkeriak jasaten dabez, eta indarkeria horreek zeharkatu egiten dabez, esate baterako genero-indarkeria, baina ez hori bakarrik, baita indarkeria instituzionala, gizarte indarkeria, arrazakeria, klasismoa... be. Preminazkoa eta bidezkoa da eredu patriarkalaren aldaketa.